

NEGUA


Errepika: **Negua hor da ; kanpoan hotz da**
Txomin laguna beztitzen* da.

Soinean berokia eta burukoa,
 galtzerdi beroak eta botak.

Errepika.

Lepoko gorria itzulikatua,
 eskularruak ta orai prest da.

* beztitzen : jantzen



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Doinuaren zuzentasuna landu.	◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.	◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Lexiko bat bereganatu (jantziak). Urtaro bati doazkion hitzak definitu. + ikus hizkuntza helburuak.	◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...). ◆ Aditzen denboraldiak, izenordeak eta lokailuak aldatuz erabili. ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)

- Hurrek, kantatzen duten une berean, kantua antzezten dute.
- Erakasleak/animatzaileak eranskinean dauden bi marrazkiak erabil ditzake :
 - handitasunaren lantzeko (neurri egokiko jantziak)
 - lateralizazioaren lantzeko (eskularruak doazkien eskuetan).
- Hurrek jantziak moztu behar dituzte eta beste marrazkian itsasi, Txomin lagunaren beztitzeko.
- Elementu arrotza (udako galtza motz lorekariak) baztertu behar dute.
- Marrazkia margotuko dute eta ondotik, elurrarekin apainduko (kotoinarekin).

HIZKUNTZA HELBURUAK :

1. *Norena* : Jokoa. Haurrak errondan jarririk daude. Erdian berokiak (edo beste jantzi bat, xapela adibidez) metaturik emaiten dituzte.
 - **Erakasleak** : Norena da beroki hau?
 - **Haurrak** : Nerea da (edo Patxirena da).
2. *Ezezko formak* : joko bera egin.
 - **H1** : Beroki hau Peiorena da.
 - **H2** : Ez da Peiorena.
3. *Plurala* : joko bera egin bainan haurren zapetak hartuz.

☺ **Marraztuak diren neguko jantziekin Txomin laguna bezti ezazu.**
Marrazki osoa margotu eta, elur malutekin apain ezazu.

Osatzeko :

- **entzun** *Chants des 4 saisons. Calendrier sonore de la nature*. 09307 KDa. Sittelle.
- **ikus** *Negua* kantua. Gure abestiak 3.4. Heziketa musikal naturalerako haur abestiak.
- **ikus** *Elurra* olerkia. A. Kazabon. Bazen behin, behin bazen. Elkar.
- **ikus** *Hitzak jostailu*, 26. eta 52. or., J. Ormazabal. Elkar.

